

Oporkunde

INAKI SEGUROLA



UMETATIK dakigu lana kaka dela eta gauza ona izan baliuz ez zela guretzat izango. Eskolan erakutsi ziguten ordea, helduko zela eguna aurreraparen makinak lanaren zigortetik libratuko gintuzena eta, hartara, potrorra santuaren esnemamitan biziko zela berriro handiak zomorra. Dena gezurra: iruzur handia goiztik ez da ezagutu eguzkiaren azpian.

Aurrerapena aurreraminez emalduta eta Garapen izeneko munstroa jaito zen. Zer behar da jendea bizi dadin?, zigiten zuen aurrerapen zaharrak. Garapen zital horrek berriz: zer behar da dirua bizi dadin, dirua mugitu dadin, ekonomia hazi eta merkataria zabal dadin, hutsaren eta litxarria hutsalen produktzioak segi dezan? Hiru munduetako lau bazterrek autoz, telebista eta mikrotxipez bete ondoren, ze teknozaborki asmatuko dugu jendea bizi ez dadin? Ba, erloju suntuksorra adibidez: ezkildoretik kristo guztiaeren eskumuturrera ekartzeari guxi iritzirik, orain berriz, bizi guztiraiko izaten ziren haien tokian, hilabete batzutan betikoz akiztzen den erloju merkea omen dakarte merkataritza interaktiboak. Aspaldi utzi zitzaion, izan ere, gauzak produktuzeari; fede berriaren produktioa bera da produktuzten dena, hau da, produktiozako aitzakiak, lan-orduak, denbora huts bizi-betegarria, lana bera, hau da, kaka. Aurrerapena buru-buztanka: kaka-tatik aterako gintuela esanez hasi eta kaka produktuzten bukatu.

Osteguneko Oporkunde hori berriz polita. Nafarroako ihauter famatuaren atariko osteguneari jarri zuten sindikatuetao exekutiboek, norik bere joalduak eta moztuak atera zitzen. Bi alderdietako tuniturtoak elkarrekin aseko dira orain Garapenaren iurtzuloko kakajarioz, eta guk ez dugu, ni beldur, Zanpantzar triste honen azkenik pixkatean ezagutuko.

Harridurak

TXILLARDEGI



27ko oporra joana da. Sindikatoak bi multzotan banatu dira: batean ELA eta LAB sindikato abertzaleak, bestean UGT eta CC00 espainoiak.

Bi sindikato abertzaleak klase-organizazioak izan arren, ideologiaz eta proiektu estrategikoz desberdinak izanik ere, batera jokatu dute berriro ere. Baina sindikato espainol eta anti-abertzaleetatik nabarmenki berezita.

Alderdi politikoak, berriz, klase-organizazioak izan ez arren (gutxienez sindikatoak diren heinean), zeharo bestaldera agertzen zaizkigu. 'Bloque de Ajouria-Enea' deritzen multzoan, abertzaleak eta anti-abertzaleak erabat uztarturik eta baturik aurkitzen ditugu. Eta Herri Batasuna, praktikan bakarrik, beste multzoaren ardatza da.

Alderdi 'abertzale' batzuk, ez dute pasurik bat ere ematen, partidu anti-abertzaleen eskutik ez bada. Eta, ofizialki bederen, klase-organizazio ez direnek, ateka bertsi-hertsia jartzen dute behin eta berriz inolako ekinzeta bateraturik burutzeko.

Badirudi, logikaz, Euskal Herriaren nazioaskapena helburu duten alderdi politikoek, aisa iortu behar luketela abertzaleatasuna helburu duten ekinzeta elkarturik joatea. Baina ez da horrelakorik ikusten. Euskararen alorrean, adibidez, batasun handia espero zitekeen alderdi 'abertzale' horien artean, eta problema gaitzak partidu euskerofoboekiko tratuetan.

Ez da ikusten duguna, ordea. Alderdi 'abertzaleek' nahia dugu, nabarmenki, euskararen arloa euskerofoboaren eskutian jarri, euskaltzalea eta saiaturik eskutan baino.

Harrigarria da, horretara, abertzale batzuk euskal sindikatoak kritikatzeko, eta euskal alderdi politikoan jokabidea oinarria.

HEMEROTEKA

EL DIARIO VASCO

Hedapena

Aurreko asteartean Ertzaintza Donostiako kaleetan hedatzea EAEko Polizia finkatzeko simbolismo eta garrantzi handiko mugaria da. estatutu-normalitate gauza eta Eusko Jaurilaritzaren eta Administrazio Zentralaren artean lortutako akordioaren ondorio dena. Era berean, Donostiako auzoetara 400 agente autonomo iristea Ertzaintzarentzat garrantzi handiko eronka da Polizia integrala izan nahi duen aldeetik.

Ertzaintzaren hedatzeak donostiar gehien-gehienak harrera ona jaso du, baina baita, zoritxarrez, esparru erradikalizatueneko gazte taldeek planifikatutako kale-desestabilizaziorako kanpaina bat ere, aurreko 27an agresioa, azkoin eta torlojoen jaurtiketa, hiri tresneria apurtzea, zenbait denda eta automobilen aurkako erasoak eta pikete biolentoak

Za Valoracion



erabiliz greba orokorrerako deiaz baliatu baitziaren Gorputz horri eta arau zibiko oinarrikoenei arau egiteko.

EDITORIALA

EL PAIS

Ezinezko zeregina

Kasko urdinen presentzia luzea Bosnia-Herzegovinan argi eta garbi auzitan jartzen ari da eta ez bakarrik bertan tropak dituzten herrialdeetan —Espainia horien artean—. Hurrengo udaberrian handik aldegitiko posibilitatea, hasiera batean aldeetako bat



GALLEGO & REY / DIARIO 16

—Sarajevoko Gobernua— malgutasun edo otzantasun handigoko jarrerak hartze- ra presionatzea helburu zuen nazioarteko bitartekarien beste baliabide bat —David Owenen batez ere— beste- rik ez zena, dagoeneko auke- ra erreala da, are daitekeena ere. Eta halaxe da bai Euro- pako hiriburuetan bai Nazio Batuen New Yorkeko egoit- ztan guztiz ziurtat baitute kasko urdinek jadanik ezin dutela bete bere garaian ego- kitu zitzaizen eginkizuna: biztanlego zibila laguntza humanitarioaz hornitzea etsaien arteko bake akordioa lortzen zen bitartean.

EDITORIALA

ZUZENDARIARI

Pankartaren atzean

Unibertsitateko sarreran edo ekinza garrantzitsuetan, 6 irakasle despedituak ikus ditzakezue pankartaren atzean.

Benetazko Euskal Unibertsitate eta irakaslego propioaren aldeko borroka batez ere azken urte honetan nabaritu da. Bide luze honetan bideratu direnek traba eta eragozpen asko gainditu behar izan dute, une guztietan tinko eta adoretu mantendu direlarik era guztietako eraso- en aurrean. Ixiltasunean, arazoari konponbide bat emateko, negoziazioa aldarrikatzen dute eta borroka legitimo honen erantzuna, zigorra eta errepresioa da.

Ikasle bezala, eta konfliktu zuzenki bizi dugun moduan, irakasleekin bat gaude irtenbidea negoziatzeko dela esaten

dutenean; parte inplikatu guztien arteko negoziazioa, eta gehiago oraindik Unibertsitatea bezalako entitate batetan non dialogoa eta arrazionaltasuna lantzen ikasi behar dugun.

Irakasle hauek gure kabuz pentsatzen erakutsi digute: irakasle ikasle arteko harresia apurtu dute eta maila bereko pertsonak bezala tratatu gaituzte ikasle- lei.

Egoera konfliktuaren aurrean ez gaituzte engainatu ez manipulatu, egia aurretik eraman ez ondorio guztiekin.

Bestealde, lotsagarria da komunikabi- deek egiten duten arazoaren interpreta- zio partziala eta ondorioz ez objektiboa, eta honek kazetaritzako ikasleak garen heinean, gehiago izutzen gaitu.

Argi dago ere azken aldi honetan giza baloreak deklabe izugarrikoa jasan du-

tela eta konpetitibitatea bihurtu dela la- gun garrantzitsuetan. Ikasle bezala, pertsona bezala demostratu nahi dugu elkartzuna egon badagoela, eta irakasle hauek elkartzun ezari eta pasibitateari lekuzio bat eman dietela, konfliktuon asko eta asko utzi dutelarik.

Gaur ere Unibertsitatearen sarreran ikus ditzakegu pankartaren atzean, eta nahiz eta batzuek amorratu esaten iada- nik despedituak eta kanpo dandela, zuek badakizue oraindik ikasleen apioaren bidez, klaseetan, lanean zaudetela zuen ikasleekin.

Segi gogor benetazko euskal unibe- rsitate eta irakaslego propioa lortu arite.

NAGORE IRASTORZA
IKERNE ZARATE
MAITE MANZANO
Bilbo

GAIA JARRITA

Lasarteko krosa



Etetik oinez joaten ginan ni mutikoa nintzela, gogoan daukat afrikarrek denok txorazen ginela. Korrikarako etzeratenez batera kasta motela, zuzentat bedi txapela (bis), gizarte hontan zaudetelako bigarren mailan bezala, berriro ere esan zazute bizkorrenak zeratela.

Doinua: Zumarragan
Euzkitzek plazaratu zuena.

JOKIN SOROZABAL

Egunkaria

Batzorde Parkeidea: 72564 E / Lege Gordailua: SS 800/90



GNDK IKUSKATUTAKO HEDAPENA

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria: MARTIN UGALDE

Kontseilu Editorialeko Zuzendaria: JOAN MARI TORREALDAI

Kontseilari Ordezkaria: INAKI URIA

Gerentea: FERMIN LAZKANO

Zuzendaria: MARTXELO OTAMENDI

Zuzendariorde: LUZIAN ETXEZAHARRETA

Publikatzailea: MARI JOSE SARASA

Espainiako Publikatzailea: PUBLICITAS
Capitan Haya 1.2a 28020 Madrid / # 91 555 11 01 / Faxa: 91 556 29 29

HELBIDEAK

Erredalazio eta Talerra: ANTTA S.A. Industrialdea 01-02 Pablioak /

20160 Lasarte-Oria / # 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egokita soziala, Publikatzailea eta Administrazioa: Antso Jakituna,

16-1 / 20010 Donostia / # 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Arabe: San Antonio 20-1. Leher, 01005 Gasteiz / # 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Itxas Monasterio 45-13 esk. / (Iritziaz dorrea) / 31011 Iruia

/ # 17 80 7879 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Zabalburu Enparantza, 2-1. Leher, / 48003 Bilbo /

410 40 46 / Faxa: 410 37 15

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: Panneau 14, 1 / 503 Posta

kutxanila, / 64100 Baiona / # 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11